



ESPAÑI'KO  
OLERKARIAK  
EUSKERAZ

II

Etxebarria'tar Juan Anjel

**Etxebarria'tar Juan Anjel**

**ESPAÑI'KO OLERKARIAK  
EUSKERAZ**

**II**

**ESKEINTZA:**

*A todos  
los escritores euskaldunas  
que no figuran  
en los ficheros  
de las bibliotecas  
de nuestra  
Villa.*

**Euskeratzailleak**

Garcilaso de la Vega

(1503 - 1536)

Escrito está en mi alma vuestro gesto,  
y cuanto yo escribir de vos deseo;  
vos sola lo escribistes, yo lo leo  
tan solo, que aun de vos me guardo en esto.

En esto estoy y estaré siempre puesto;  
que aunque no cabe en mí cuando en vos veo,  
de tanto bien lo que no entiendo creo,  
tomando ya la fe por presupuesto.

Yo no nací sino para quereros;  
mi alma os ha cortado a su medida;  
por hábito del alma misma os quiero.

Cuanto tengo confieso yo deberos;  
por vos nací, por vos tengo la vida,  
por vos he de morir, y por vos muero.

Gogoan irarri dot zure jasa  
ta zutzaz idatzi gura dodana  
zeuk soillik idatzi, irakur-lana  
nik. Ontaz be ez nabil neronen kasa.

Orain eta beti orretan natza.  
Ezin neugandu or dakusdan dana,  
ta aituz naiz siñistuz ainbesteko ona,  
siñistea damint aurre-laguntza.

Ni zu maitatzeko jaiokoa naiz,  
nire gogoak zu biur neurria,  
gogo onen jantzia izan zakidaz.

Dodan dana zuri zor dautzut, egiz.  
Zugaitik jaio ta nozu bizia,  
zugaitik ilgo ta il ere egiten naz.

## XVII

Pensando que el camino iba derecho,  
vine a parar en tanta desventura,  
que imaginar no puedo, aun con locura,  
algo de que esté un rato satisfecho.

El ancho campo me parece estrecho;  
la noche clara para mí es oscura;  
la dulce compañía, amarga y dura,  
y duro campo de batalla el lecho.

Del sueño, si hay alguno, aquella parte  
sola, que es ser imagen de la muerte,  
se aviene con el alma fatigada.

En fin que como quiera estoy de arte  
que juzgo ya por hora menos fuerte,  
aunque en ella me vi, la que es pasada.

Bidea artez-arte z joialakoan,  
ainbesteko zori-txarpean jausi  
nintzan, zororik be, ezin iduri  
ezer poz artzeko une batean.

Zelai edatsua estu bai'litzan,  
niretzako illun oi da gau-argi.  
Mingots-gogor lagun-atsegingarri,  
gudu-zelai latza daurkit ogean.

Lotaldian, lorik ba'da, eriotz-  
irudi dan une a bakarrik bat  
etorten da gogo nekatuagaz.

Dana-dala, antzez nabillelako z,  
onera ezker o ez dot ain txartzat  
lengo aldía, antxe egona ba'naz.

## XXXII

Estoy contino en lágrimas bañado  
rompiendo el aire siempre con sospiros;  
y más me duele nunca osar deciros  
que he llegado por vos a tal estado;

que viéndome do estoy, y lo que he andado  
por el camino estrecho de seguiros,  
si me quiero tornar para huiros,  
desmayo viendo atrás lo que he dejado;

si a subir pruebo, en la difícil cumbre,  
a cada paso espántanme en la vía  
ejemplos tristes de los que han caído.

Y, sobre todo, fáltame la lumbre  
de la esperanza, con que andar solía  
por la oscura región de vuestro olvido.

Etengabe nago malkoz urturik,  
aizea urratzen beti intziriz.  
Ta auxe mingarrien: ez azartu iñoiz  
esaten zugaitik nagola alantxik.

Nun nagon oar ta zure atzetik  
egin bidearen estua ikusiz,  
atzera ba'dagit zuri itzuriz,  
atzean itxiak nakar makalik.

Ta aldatz gaitzari ba'dautsot ekiten,  
bidean izutzen naiatzu sarri  
len jausitakoen eredu itunez.

Ta batez bere eskas dot itxaropen-  
argia, auxe neban len lagungarri,  
zure antziaren lurralde illunez.

VII

A BOSCAN

*Porque estando en Alemania danzó  
en unas bodas*

La gente se espanta toda  
que hablar a todos distes,  
que un milagro que hecistes,  
hubo de ser en la boda.

Pienso que habéis de venir,  
si vais por este camino,  
a tornar el agua en vino,  
como el danzar en reir.

BOSCAN'I

*Alemania'n egoala, ezteguetan  
dantza egin ebalako.*

Danak izututa dagoz,  
danai emon zeutsen-ta itzgai.  
Alatz bat egin zenun, bai,  
ta ezteguan zalakoz.

Azkenean, nire ustez,  
ortik jo ezkerero, ura  
ardotzen elduko zara,  
dantzaldi a barre legez.



## CANCION QUINTA

Si de mi baja lira  
tanto pudiese el son, que un momento  
aplacase la ira  
del animoso viento,  
y la furia del mar y el movimiento;

y en ásperas montañas  
con el suave canto enterneciese  
las fieras alimañas,  
los árboles moviese,  
y al son confusamente los trajese;

no pienses que cantando  
sería de mí, hermosa flor de Gnido  
el fiero Marte airado,  
a muerte convertido,  
de polvo y sangre y de sudor teñido;

## BOSTGARREN ABESTIA

Nire jogailu ori  
soiñua naiko ba'litz une baten  
aize indartsuari  
asarrea kenduten  
ta itsas-igiera sumiña ibitzen,

ta mendi malkar-zear  
basoko piztiak soiñu gozoaz  
al ba'leuz baketsu jar,  
zugaitzai eragiñaz  
beraren soiñuaz naste ba'lekarz.

Ez uste eresiekin,  
Gnido'ko lore eder, ilgo neukela  
Marte anker-erremín  
ori, auts ta odola  
eta izerdia dariozala.

ni aquellos capitanes  
en las sublimes ruedas colocados,  
por quien los alemanes  
el fiero cuello atados,  
y los franceses van domesticados.

Mas solamente aquella  
fuerza de tu beldad sería cantada,  
y alguna vez con ella  
también sería notada  
el aspereza de que estás armada;

y cómo por ti sola,  
y por tu gran valor y hermosura,  
convertida en viola,  
llora su desventura  
el miserable amante en su figura.

Hablo de aquel cautivo,  
de quien tener se debe más cuidado,  
que está muriendo vivo,  
al remo condenado,  
en la concha de Venus amarrado.

Ez eta buruzagi  
areik, burdieten andi jarrita,  
eurakaitik doatzi  
alemanak lotuta  
lepoa, prantsesak ondo ezita.

Zure andi-ederra  
abestuko neuke bakarrik. Noizik  
bein zarean lakarra  
batera igarririk,  
ark orni zaitu-ta, abestuko nik.

Zelan zugaitik eta  
zure edertasun andi oneri,  
zitori biurtuta,  
negarrez dan maitari  
gaixoa, adu txarrez, itxura utsari.

Jopu agaz naiz mintzo:  
agaitik ardura andiangoan,  
bizirik ilten dago,  
galdua arraunetan,  
loturik Benus'en ur-ontzietan.

Por ti, como solía,  
del áspero caballo no corrige,  
la furia y gallardía,  
ni con freno le rige,  
ni con vivas espuelas ya le aflige.

Por ti, con diestra mano  
no revuelve la espada presurosa,  
y en el dudoso llano  
huye la polvorosa  
palestra, como sierpe ponzoñosa.

Por tí, su blanda musa,  
en lugar de la cítara sonante,  
tristes querellas usa,  
que con llanto abundante  
hacen bañar el rostro del amante.

Por ti, el mayor amigo  
le es importuno, grave y enojoso;  
yo puedo ser testigo,  
que ya del peligroso  
nafragio fui su puerto y su reposo.

Zugaitik oi eban lez  
ez dau zaldi itzal ta asarrea  
ezi, aoko-bidez  
ekar, ta atsekabea  
bere ez yako ezten zorrotz-betea.

Zugaitik, trebe eskua,  
ez dau erabilten ezpata ariña,  
ta ezbaiko laua  
ba'da, toki zikiña  
izten dau, pozoidun suge egiña.

Zugaitik bere gogoz  
kitara zoli jo barik, intziriz  
dago, illeta itunak joz,  
negar-malko ugariz  
maitalariaren mosua bustiz.

Zugaitik lagunena  
egoki-ez, aztun ta alagarri  
yako; nik dakidana.  
Gal-zorian egonki  
neu izan nintzaion kai babesgarri.

Y agora en tal manera,  
vence el dolor a la razón perdida,  
que ponzoñosa fiera  
nunca fue aborrecida  
tanto, como yo dél, ni tan temida.

No fuiste tú engendrada,  
ni producida de la dura tierra;  
ni debe ser notada  
que ingratamente yerra,  
quien todo el otro error de sí destierra.

Hágate temerosa  
el caso de Anaxérete y, cobarde,  
que de ser desdeñosa  
se arrepintió muy tarde  
y así su alma con su mártinol arde.

Estábase alegrando  
del mal ajeno el pecho empedernido,  
cuando abajo mirando,  
el cuerpo muerto vido  
del miserable amante, allí tendido.

Ta orain ataraiño  
gaintitzen dau miñak zentzunik-eza,  
arentzat egundaiño  
iñungo pizti gaitza  
iguin-bildurgarri ez, ni lez, antza.

Zu ez ziñan ernea  
lur latzaz egiña; ez bedi oar  
oker daula bidea  
beste edozein oker-txar  
beragandik kentzen dauana oldar.

Jantzi zaitetz bildurraz-  
erabez, arako Anaxarate'n  
jazoaz. Bere ezetzaz  
belu damutu bai zen,  
gogo-atxurdiñak daukaz erretzen.

Iñoren gaitzaz alai  
egotzun arrizko bularra, bera  
adi ta an zun ikusgai  
maitale buruzpera  
luze-luze etzanda, gorpua bera.

Y al cuello el lazo atado,  
con que desenlazó de la cadena  
el corazón cuitado,  
que con su breve pena  
compró la eterna punición ajena.

Sintió allí convertirse  
en piedad amorosa el aspereza.  
¡Oh, tarde arrepentirse!  
¡Oh, última terneza!  
¿Cómo te sucedió mayor dureza?

Los ojos se enclavaron  
en el tendido cuerpo que allí vieron,  
más duros y crecieron,  
los huesos se tornaron  
y en sí toda la carne convirtieron;

las entrañas heladas  
tornaron poco a poco en piedra dura;  
por las venas cuitadas  
la sangre su figura  
iba desconociendo y su natura;

Biotz aula kateaz  
azke egin eban lokarriakin  
samea bil egiñaz,  
neke laburrarekin  
iñoren betiko zigorra ordain.

Antxe somau gogorra  
biotzberatasun samurra zala.  
Damu berandukorra!  
Azken biotz apala!  
Nundik sortu yatzun lazkeri itzala?

Begiak jos zizkion  
ango goputzil lur-gain etzanari,  
azurtza azi yakon  
gogortuaz ta aragi  
guztia eurentzat ar zuten mami.

Errai otzak apurka-  
apurka arri uts biurtu ziran,  
zanak atsedentzaka,  
odola bere kabuz  
ba-joian izate ta itxura galduz.

hasta que, finalmente,  
en duro mármol vuelta y transformada,  
hizo de sí la gente  
no tan maravillada  
cuanto de aquella ingratitud vengada.

No quieras tú, señora,  
de Némesis airada las saetas  
probar, por Dios, agora;  
baste que tus perfetas  
obras y hermosura a los poetas

den inmortal materia  
sin que también en verso lamentable  
celebren la miseria  
de algún caso notable,  
que por ti pase triste y miserable.

Azkenean atxurdirin  
sendo biurtu ta bestelakotu  
zan. Jendea arri egin,  
bera zala-ta, lotu  
ta are eskergabe agaz aspertu.

Jainkoarren, oraingoz,  
ez zaitetz Nemesis asarrearen  
geziak ekar-gogoz.  
Aski da zure egiñen  
bikain ta ederrak auxe dagien:

Olerkariet opa  
il-eziñeko gai. Ez dezatela  
neurtitz merkeetan aipa  
zeugazko ezer, dala  
agiriko edo itun-tamala.

Miguel de Cervantes

(1574 - 1616)

«EL JUEZ DE LOS DIVORCIOS»

Entre casados de honor,  
cuando hay pleito descubierto  
*más vale el peor concierto  
que no el divorcio mejor.*

Donde no ciega el engaño  
simple, en que algunos están,  
las riñas de por San Juan  
son paz para todo el año.

Resucita allí el honor  
y el gusto, que estaba muerto,  
*donde vale el peor concierto  
más que el divorcio mejor.*

Aunque la rabia de celos  
es tan fuerte y rigurosa,  
si los pide una hermosa,  
no son celos, sino cielos.

EZKONTZA-AUSTEEN EPAIKARIA

Izen oneko ezkontzan  
auzia ba'da agiriko,  
obe da batasun txarra  
ezkontza-auste ona baiño.

Batzuk oi duten iruzur  
bakuna sartu ezean,  
San Juanetako akarra  
pakea urte guztian.

Illik egoan gozoa  
berpizten eta ospea,  
ezkontza-auste ona baiño  
batasun txarra obea.

Esparen amorrua indar  
setatsua arren, ederrak  
eskatu ezkerero, espa  
barik ba-dira zeruak.



Tiene esta opinión Amor,  
que es el sabio más experto:  
*que vale el peor concierto*  
*más que el divorcio mejor.*

Maitasunak au deritza,  
jakitun be jakitun da:  
Ezkontza-auste ona baiño  
alkartasun txarra oba.

L. Vélez de Guevara

(1579 - 1644)

MENGO.

Bartola, el desdén cruel  
deja, pues estás aquí.

No des en nuevos antojos,  
que me muero por tus ojos  
desde el punto que te vi.

Y tanto, tanto en tu cara  
todo mi calletre abrigo,  
que por casarme contigo  
de ser obispo dejara.

MENDIKO ILLARGIA

Bartola, ez izan zaputz,  
emen zagoz-eta. Barriz  
ez ni galetu; illik naz  
zure begiok ikusiz.

Zure mosuan zentzuna  
ain daukat josia, itxiko  
neuskio Gotzaigoari  
ere zugaz ezkontzeko.

Tirso de Molina

(1584? - 1648)

MÚSICOS.

*Al molino del amor  
alegre la niña va  
a moler sus esperanzas:  
quiera Dios que vuelva en paz.*

*En la rueda de los celos  
el amor muele su pan  
que desmenuzan la harina  
y la sacan candeal.*

*Río son sus pensamientos,  
que unos vienen y otros van,  
y apenas llegó a su orilla,  
cuando así escuchó cantar:*

*Los bueyes de las sospechas  
el río agotando van,  
que donde ellas se confirman,  
pocas esperanzas hay;*

Maitetasun-errotara  
bere itxaroak eiotzen  
pozik doa neskatoa:  
betor bakez, Jainkoarren.

Espaen gurpillaz bere  
ogia Maitetasuna  
eiotzen. Xetuz gero  
galzuri dagie uruna.

Bere gogaiak batetik  
bestera, ibai-antzera;  
olakoxe abestia  
entzun aratuz batera:

Susmoen idiak ibai-  
ura agor bereala;  
itxaropena urritu,  
eurok ugaritu ala.

*y viendo que a falta de agua,  
parado el molino está,  
desta suerte le pregunta  
la niña que empieza a amar:*

*Vio el amor lleno de harina,  
moliendo la libertad  
de las almas que atormenta,  
y así le cantó al llegar:*

Errota geldi ur-ezaz;  
maitatzen asiberri dan  
neskatilleak itaun au  
egiten dautso orduan:

Naigabetzen dauzan gogo  
azkatasuna eiotzen,  
urunez bete, Maitea  
ikus ta asten da abesten:

L. Quiñones  
de Benavente

(1589? - 1651)

## LOS MUERTOS VIVOS

COSME

¡Válgame Dios, si me he muerto  
sin sentir!

CRIADA

Aquí está todo.

*(Saca una sábana y candelero con luz.)*

ISABEL

No tengo para el entierro;

mas, pues anochece ya,

a la puerta pediremos

limosna para enterralle.

Cúbrele con ese lienzo.

*(Echanle en el suelo y pónenle una sábana  
encima.)*

COSME

¡Que es cierto, hermana!

## ILDAKOAK BIZI

ISABEL

... ..

Zer egin, umezurtz-txiro?

KOSME

Jainko maitea, igartzeke

il naz!

NESKAMEA

Emen dana!

ISABEL

Ta ni

illetako ezer gabe.

Gau illun da-ta, atean

eske egingo dogu lur

emoteko. Zapiagaz

estaldu.

KOSME

Arreba, ziur!



ISABEL

Pluguiera

a Dios no fuera tan cierto!

COSME

Ana, ¿estó muerto?

CRIADA

¡Pues no!;

tan muerto como mi abuelo.

COSME

También hay abuelos vivos, (*Tiéndese.*)

mas sin duda es verdad esto,

pues todos lo dicen. ¡Alto!

Murámonos, y protesto

que muero de mala gana,

y por ensalmo me muero,

pues siendo yo venial,

mi hermana mortal me ha hecho.

*Sale Sánchez con un jarro de vino y un panecillo en la mano, vestido de viudo vejete.*

ISABEL

Ala Jainkoa, ez ba'litz

orren ziur!

KOSME

Ana, ilda

ete nagotzu?

NESKAMEA

Ez zera!

Nire aitita bezela.

KOSME

Biziriko aititak be

omen dagoz; au benetan

dot, danak diñoeta. Il

ta auxe aitor dagidan:

Gogo txarrez ilten naz ta

atzipez gaiñera. Arin

nozue ta, alan be, nire

arrebak ilkoi nau egin.

SÁNCHEZ

Si es segunda vida el pan  
y el vino para los viejos,  
a mi libreta me arrimo  
y a mi cuartillo me atengo.

ISABEL

Para el ánima deste hombre,  
que sin confesión le han muerto.

SÁNCHEZ

¿Quién le mató?

ISABEL

Un hombre.

COSME

Una hambre.

SÁNCHEZ

No llevo que dar dinero;

SANTXEZ

Zarrentzat bigarren bizi  
ogia ta ardaoa  
ba'dira, dirua aldean  
ta gertu beukat zatoa.

ISABEL

Gizajo onen gogo-alde,  
il dabe-ta aitortu barik.

SANTXEZ

Ta nork?

ISABEL

Gizonak.

KOSME

Goseak.

SANTXEZ

Aldean ez dot dirurik

Calderón de la Barca

(1600 - 1681)

*Culpa*

Villanos, hijos de Adán,  
los que sois, los que habéis sido  
y habéis de ser para siempre  
en pecado concebidos;

villanos, hijos de Adán,  
segunda vez os lo digo,  
los que pagáis a mi imperio  
pechos del primer delito,

oíd, que con todos hablo,  
pues porque a mi voz rendidos  
estéis todos, y ninguno  
pueda escusarse de oírlo.

Erritar, Adan'en seme,  
zarien, izandako ta  
izatekoak, betiko  
pekatupean sortuta;

Erritar, Adan'en seme,  
bigarrenko aldiz nator;  
nire eskuari len —oben—  
zerga bai dautsozue zor.

Entzun, guztiekin bai dot,  
danok nire itzetara adi.  
Ez entzutearren iñork  
ez beza aitzakirik jarri.

A vuestra Naturaleza  
mi esclava traigo conmigo  
herrada con esos duros  
hierros que en su rostro imprimo.

Y para que de una vez  
reconozcáis mis designios,  
sabiendo quién soy: yo soy  
la serpiente de quien dijo

en el Génesis Moisés  
que andaba en el paraíso  
disimulada; yo soy  
aquel hermoso prodigio

que coronada en un monstruo  
de siete cuellos distintos  
la Apocalipsis veré  
con un vaso de oro rico

brindar mortales venenos  
de inficionados hechizos.  
Yo soy la Culpa, en efecto;  
y pues hoy mi aliento altivo

Zuen Izatea emen  
dakart, neronen jopua,  
mosua irarten dautsodan  
burdin gogorrai lotua.

Ta bein ta betiko nire  
erabagiak ezagun  
dagizuezan nor nazan  
jakinki, Moises'k Idazteun-

Sarreran zion sugea  
nozue, Atsegin-tokiz  
ezkutuka zebillena.  
Arako ikuspen eder naiz,

zazpi lepo banatako  
izugarri bat ba'nintz lez  
koroatuta, Agiriak  
ikusi bear dauanez.

Urre bikaindun edontzi  
baten, aztikeri-kutsuz  
naste, eden ilgarriak  
zabal bear ditut erruz.

lo ha dicho en públicas voces,  
no sin vanidad lo ha dicho.  
Cuando yo en el mundo andaba  
sin imperio, sin dominio,

arrastrando por la tierra  
el pecho escamado mío,  
me resbalaba en las flores  
temerosa de mi ruido,

y mis alientos cobardes  
eran callados gemidos,  
disfrazándome mañosa  
por temor o por arbitrio

en las grutas de los valles  
y en las quiebras de los riscos,  
porque como andaba entonces  
de traición, era preciso

disimular los intentos  
y desvelar los indicios.  
Pero ya que virtuosa  
con tantos aplausos vivo,

Ni Errua naz, atan be.  
Gau nire arnas beroa  
itz agiriz mintzo da-ta,  
arrokeri gabe doa.

Ludi ontan nenbillela  
agintze-jaubetza barik,  
nire eskatadun bular au  
lur-gain narraz ekarririk;

lore-gain labanka nire  
otsaren bildur, nire ats  
koldarrok intziri ixillak  
ziran, naira antzaldatuaz

bildurrez edo gurata,  
aran-atz zuloetan zein  
arkaitz-zirrikituetan.  
Azpikeriz niardun bein,

asmoak ezkutuz gorde  
bear eta aztarrenak bil.  
Baiña ainbeste txalorekin  
bide onean bai nabil,

erguida el pecho levanto,  
el cuello que inhiesta vibro,  
la cerviz que alta sacudo,  
la frente que altiva erigo,

dando no gemidos roncoss,  
ya no callados bramidos,  
sino declaradas voces  
en articulados silbos.

Sabed, pues, sabed, mortales,  
que no sin causa ha nacido  
hoy en mí la vanidad  
que victoriosa publico

desde la campaña en cuyo  
verde, hermoso laberinto,  
la Gracia y yo cuerpo a cuerpo  
y cara a cara nos vimos.

bularra zur ipinten dot,  
lepoa lerdén dardaraz,  
burua goi astinduten,  
bekokia arro jasoaz.

Ez nabil uluka edo  
ixillean orroaka,  
baizik abots agirikoz  
argi-argiro txistuka.

Jakizue, ba, ilkorrok,  
garaille urtenda ager  
dodan arrokeria ez  
da gaur nigan sortu alper.

«EL GRAN TEATRO DEL MUNDO»

ESCENA IV

Autor.—Pues para grandeza mía  
aquella fiesta he trazado,  
en este trono sentado,  
donde es eterno mi día,  
he de ver mi compañía.  
Hombres que salís al suelo  
por una cuna de yelo  
y por un sepulcro entráis,  
ved cómo representáis,  
que os ve el Autor desde el cielo.

Egillea.—Nire andirako doa-  
ta jai a, bakaulki ontan  
jarrita, ikus dagidan,  
nire eguna betikoa  
bertan, nire lagungoa.  
Lurrera izotz-seaskatik  
ager eta illobitik  
zoazen gizonok, ea  
nola antzeztu. Egillea  
begira dago zerutik.



Alberto Lista

(1778 - 1848)

Rojo sol, que con hacha luminosa  
cobras el purpureo y alto cielo,  
¿hallaste tal belleza en todo el suelo,  
qu'iguale a mi serena Luz dichosa?

Aura süave, blanda y amorosa,  
que nos halagas con tu fresco vuelo,  
cuando el oro descubre y rico velo  
mi Luz ¿trenza tocaste más hermosa?

Luna, honor de la noche, ilustre coro  
de los errantes astros y fijados,  
¿consideraste tales dos estrellas?

Sol puro, aura, luna, luces de oro,  
¿oístes mis dolores nunca usados?  
¿vistes luz más ingrata a mis querellas?

Eguzki gorria, argizko aizkoraz  
ortze urrezko-goia ikutzen dozuna,  
idoro dozu lur guztian barrena  
nire Argi bare-zoriontsuagaz,

bardindutekorik? Zure egada otzaz  
palaga gaituzun aize bigun-leuna,  
maite, nire Argi'k bere urre-ostena  
agertzean uki ete dozu, ausaz,

ule ederragorik? Gau-aintza, illargi,  
izar ibiltari geldien moltsoa,  
alako izar bi arki al dozuez?

Euzki garbia, aize, illetargi, argi  
urrezko, nire min egundaiñokoa  
asma? Argi latzago nirekiko, oiez?

Joan Maragall

(1860 - 1911)

## EL MAL CAÇADOR

La missa matinal  
la diuen allà dalt  
aixís que es fa de dia.

La missa de l'estiu  
el capellà la diu  
amb les portes obertes.

S'oeix de tots costats  
quan enflaira els serrats  
el ginestar de Corpus.

El caçadô es daleix.  
De fora estant l'oeix  
amb un genoll a terra.

Al bell punt d'alçar Déu,  
li bota allà al bell peu  
la llebre endiastrada.

## EIZTARI TXARRA

Goiz argitzeko meza  
an goian, eguantza  
danean izaten da.

Udako meza, atea  
zabalik, kapellauak  
emon egiten dizu.

Alde guztietati  
entzuten da, Gorpuzti-  
ota usaiñez mendian.

Eiztaria da arbin.  
kanpotik dantzu, lur-gain  
belaun bat makurtuta.

Jauna goratutean  
jauzka bere oiñetan  
erbi dengañoa.

S'esventa el gos lladrant,  
la llebre fuig botant,  
i el caçadô al darrera.

«Corres i correràs.  
Mai més t'aturaràs».  
Aquesta és la sentència.

«Doncs, corro i correré.  
Mai més m'aturaré.  
Alegre és la sentència».

S'allunyen amb el vent,  
perdent-se en un moment  
els crits, la fressa, el rastre...

Passen dies i nits...  
Pels marges refluoris  
ha tornat Corpus Christi.

La missa matinal  
la diuen allà dalt,  
les portes són obertes.

Txakurra zaunka larri,  
jauzka erbia igesi,  
ta eiztaria atzetik.

Ekin ta ekin laster,  
gelditutea alper.  
Olan dago esana.

Beraz arin-aringa  
bein be geratu бага.  
Ederra dozu itza.

Ba—doaz aizeagaz  
une baten galduaz,  
oiu, ots ta aztarrenak...

Gau-egunak aurrera...  
Gorpuzti da atzera  
ibar loretsuetan.

Goizaldeko meza an  
goian oi dute esan,  
ateak zabaldurik.

En un vent de visió  
passa el mal caçador  
entre lladru'cs i fressa.

Se gira i veu l'altar,  
i al peu el capellà,  
i en alt veu l'Hòstia càndida.

Passa i es perd al lluny...  
la boirina de juny  
cenyeix l'horitzó immòbil.

Roden les estacions,  
revénen els plançons:  
cada any, cada any ve Corpus.

Cada any torna a passar;  
cada any torna a mirar,  
cada any, la missa augusta.

Cada any els capellans  
tenen més cabells blancs  
i aixequen més els braços.

Eiztari txarra ikuspen-  
aizetan da igaroten,  
zaunka-zarata artean.

Bira egin ta altara  
dakus, bean apaiza  
goian Osti zuria.

Ba-doa urrun galdurik...  
osertz geldi baturik  
bagilleko laiñoaz.

Urte-aro etortzen,  
urtero begiraten,  
urtero meza deuna.

Aurrera urte-aroak,  
berriz erne aziak,  
Gorpuzti da urtero.

Apaizak zuriago  
ulea ta gorago,  
urteoro, besoak.

Cada any l'Hòstia es va alçant,  
el temple es va aixafant  
i l'Hòstia puja, puja...

Passen més anys i més,  
el capellà no hi és:  
l'Hòstia va sola en l'aire.

Amunt... amunt... amunt...  
La volta perd el junt,  
la llum del cel s'hi filtra.

L'Hòstia s'hi va acostant...  
El temple es va esquerdant...  
El caçador no para.

Ve un any, la volta cau  
i s'obre el gran cel blau  
damunt de l'Hòstia blanca,

que s'alça lentament...  
Al ser l'estiu vinent  
floreix el temple en runes.

Urtero Ostia gorantz,  
Eliza pitzatu-antz.  
Ostia gora-gora...

Urteak urte joan,  
ta abaderik ez an.  
Ostia bakar gorantz.

Goi-goi, oso gorantza...  
Sapaiak galdu giltza,  
zeru-argia sartzen.

Ostia urreratzen...  
Eleiza pitzatuten...  
Eiztaria geldí ez.

Eleiz-sapai jaus bein,  
zabaltzen ortze urdin  
Osti zuri-gaiñean'.

Ostia gora geldí...  
Ba-dator udabarri,  
eleiz-ondarra loraz.

Se'n va pujant al cel...  
El caçadô, amb anhel,  
cada any, cada any la mira.

L'Hòstia per'nâ al zenit,  
té l'espai infinit,  
i ell, per caçâ, encisat,  
té el temps, l'eternitat.

Zerurantza dijoa...  
Eiztariak gogoa  
ontan urte-urtero.

Ostia gingarantza,  
mugage eguratsa.  
Bera eizan lilluraz  
da betikotasunaz.



Juan Ramón Jiménez

(1881 - 1958)

## CANCION

*(Alamo blanco)*

Arriba canta el pájaro,  
y abajo canta el agua,  
—Arriba y abajo,  
se me abre el alma.—

Mece a la estrella el pájaro,  
a la flor mece el agua  
—Arriba y abajo,  
me tiembla el alma.—

## ABESTIA

*(Lertxun zuria)*

Goian txoria kantuz,  
bean ura abesten.  
Goian-bean gogoa  
yat erdibituten.

Txoriak izarra, urak  
lorea kulunkaz.  
Goian ta bean nire  
gogoa ikaraz.

Paisaje dulce: está el campo  
todo cubierto de niebla;  
ya se han ido lentamente  
los rebaños a la aldea.

Es un paisaje sin voces,  
triste paisaje que sueña,  
con sus álamos de humo  
y sus brumosas riberas.

Voy por el camino antiguo  
lleno de ramaje y yerba,  
sin pisadas, con aroma  
de cosas vagas y viejas.

Paisaje velado y lánguido  
de bruma, nostalgia y pena:  
cielo gris, árboles secos,  
agua parada, voz muerta.

Sobre los álamos blancos  
de la dormida ribera,  
una luna rosa y triste  
va subiendo entre la niebla.

Ikuspegi gozo; landa  
laiñotan dago zearo.  
Artaldeak baserrira  
joanak dira astiro.

Abots bako ikuspegia  
da, itun ta ameslari,  
bere kezko lertxunakaz,  
ibar lambrotsu ta guzti.

Antxiñako bidez noa,  
bide ostro ta bedarrez,  
betea, zapalbako, gauz  
zar ezbaikoen usaiñez.

Ikuspegi estalia,  
laiñoz, miñez, tamalez aul:  
ortze arre, zugaitz igar,  
ur geldí, eztarri mintzul.

Lokartutako ibarreko  
lertxun zurién gaiñetik,  
larrosazko illargi ituna  
laiño-artean igorik.

## ELEJIAS PURAS

### III

El sol entra en mi vida por la ventana abierta,  
de modo que el rosal se ilumina de flores;  
y las rosas de oro, en la casa desierta,  
cantan no sé qué angélicas sonatinas de amores.

La tristeza romántica del poniente de oro  
va resbalando sobre el río vespertino...  
Yo, al acordarme de ella, me desespero y lloro  
una rosa y un oro, ¡lo alegre y lo divino!

### III

Euzkia sartzen da nigan leio zabaletik  
larrosondoa lorez argitzeko moduan;  
ta urrezko larrosak dabese, etxea utsik,  
ez dakit zelako ots aingeru-maitezkoan.

Urrezko sarkalde-itun ameslaria doa  
arratsaldeko ibai-gaiñez laprast egiten.  
Aregaz oroitzean etsiz, nire malkoa  
larrosa-urre bat, alai-jaungoikozkoa nasten!

## XIX

Hoy ha estado en mi alma la perfumada brisa  
de aquesta rosadora y dulce primavera;  
fue como en un ciprés un pájaro de risa,  
como una mariposa en una calavera.

¡Y qué rumor has hecho, brisa, por mis dolores!  
era como en un bosque con árboles de espanto,  
al frescor de tu paso no se abrían las flores,  
el carmín era sangre y el rocío era llanto.

## XIX

Aize usaintsua egon da gaur nire gogoan,  
udabarri larrosa-gozozko onen aizea.  
Nekosta baten barre-txoriaren antzean,  
mitxeleta bat buru-azur gain lakoxea.

Zelako abarrotsa, aize, nire min-zear!  
Izu-zugazdun baso batean bezelatsu,  
zure ibilleraren ozkirriz baratz-bedar  
bat be ez zabal, gorria odol, intza negartsu!

## ELEJIAS INTERMEDIAS

### XXII

Cuando viene el otoño, me acuerdo siempre  
[de ella.  
¿Qué tenéis, dulces tardes, llenas de hojas caí-  
[das,  
para encender de nuevo estas lumbres de es-  
[trella,  
esta tibieza de nidos, estas bocas floridas?

El campo vio su amor. Yo, entonces, era un  
[niño...  
¡Hoy, en el sol doliente que dora la ventana,  
he vuelto a oler los nardos nevados de cariño  
que me cogía ella, al sol de la mañana!

¡Otoño, triste otoño! tiempo de alma sin flores,  
primavera invertida, sol enfermo, quimera  
de ilusiones, ¿por qué remueves los amores  
que murieron un día de oro, en primavera?

### XXII

Udazkena agertzean beti beraz oroi naz.  
Zer dozue, arrasti gozo, bete orbelez,  
izarren argi oneik berriz ere biztuaz,  
kabien epeltasun au, ta ago oneik lorez?

Zelaiak ikus bere maitea. Nik aur-aro...  
Gaur leioa urreztatzen daun eguzki minduak  
maite-edurtzako nardok usaintzen dauz berriro.  
Goizeko eguzkitan artzen eustazan berak!

Udagoien ituna! Lore bako gogaldi,  
aldez besteko uda-barri, euzki aul, amets-  
lilluragarri, zertan maitasunok irauli?  
Udabarriz il ziran, urrezko egun batez!

F. García Lorca

(1898-1936)

## REMANSOS

Cipreses

(Agua estancada.)

Chopo.

(Agua cristalina.)

Mimbres.

(Agua profunda.)

Corazón.

(Agua de pupila.)

## ATSARTEAK

Nekostak

(ur geldia).

Lertxuna

(ur gardena).

Mimea

(ur azia).

Biotza

(ur-betseña).



## REMANSILLOS

Me miré en tus ojos  
pensando en tu alma.

*Adelfa blanca.*

Me miré en tus ojos  
pensando en tu boca.

*Adelfa roja.*

Me miré en tus ojos.  
¡Pero estabas muerta!

*Adelfa negra.*

## ATSALDITXO

Zure begietan  
so, gogoaz oldoz.

*Erio-orri zuri.*

Zure begietan  
so, oldoz zure agoz.

*Erio-orri gorri.*

Zure begietan  
so, ilda ziñan geroz.

*Erio-orri beltza.*

## VARIACION

El remanso del aire  
bajo la rama del eco.

El remanso del agua  
bajo fronda de luceros.

El remanso de tu boca  
bajo espesura de besos.

## ALADAKETA

Aizearen babespea  
arri-bizi adarpean.

Uraren babesgarria  
izar-moltso ostropean.

Zure aoaren babes  
laztan-mosu lodipean.

REMANSO. CANCION FINAL

*Ya viene la noche.*

Golpean rayos de luna  
sobre el yunque de la tarde.

*Ya viene la noche.*

Un árbol grande se abriga  
con palabras de cantares.

*Ya viene la noche.*

Si tú vinieras a verme  
por los senderos del aire.

*Ya viene la noche.*

Me encontrarías llorando  
bajo los álamos grandes.  
¡Ay morena!  
Bajo los álamos grandes.

ATSEDEN. AZKEN ABESTIA

*Gaua ba-dator.*

Arratsaldeko ingudez  
illargi-izpiak indarrez.

*Gaua ba-dator.*

Zuaitz andi bat abesti-  
itzetan da babesgarri.

*Gaua ba-dator.*

Ikusten ba'zentorkidaz  
aizean bidetxigorraz.

*Gaua ba-dator.*

Negar baten aurkituko  
nindukezu, baltzarana,  
lertxun andien azpiko.

## CUATRO BALADAS AMARILLAS

En lo alto de aquel monte  
hay un arbolito verde.

*Pastor que vas,  
pastor que vienes.*

Olivares soñolientos  
bajan al llanto caliente.

*Pastor que vas,  
pastor que vienes.*

Ni ovejas blancas ni perro  
ni cayado ni amor tienes.

*Pastor que vas,  
Como una sombra de oro,  
en el trigal te disuelves.  
Pastor que vienes.*

## LAU ERESI ORI

Mendizka aren gaiñean  
zugatz orlegia dago.

*Joan-etorri  
zabiltzan artzain.*

Lokartu oliendoak  
zelaira bide egin, bero.

*Joan-etorri  
zabiltzan artzain.*

Ardi zuri, txakur, makil,  
maiterik ez, dagoneko.

*Zoazan artzain.  
Urrezko itzal bat legez,  
garitzan zara urtuko.  
Zatozan artzain.*

La tierra estaba  
amarilla.

*Orillo, orillo,  
pastorcillo.*

Ni luna blanca  
ni estrella lucían.

*Orillo, orillo,  
pastorcillo.*

Vendimiadora morena  
corta el llanto de la viña.

*Orillo, orillo,  
pastorcillo.*

Lurra zegoen  
orizka.

*Munain-munain,  
artzain, artzain.*

Illazki, izar ez  
zurizka.

*Munain-munain,  
artzain, artzain.*

Baltzaranak mats  
moztuka.

*Munain-munain,  
artzain, artzain.*

*Sobre el cielo  
de las margaritas ando.*

Yo imagino esta tarde  
que soy santo.

Me pusieron la luna  
en las manos.

Yo la puse otra vez  
en los espacios

y el Señor me premió  
con la rosa y el halo.

*Sobre el cielo  
de las margaritas ando.*

Y ahora voy  
por este campo

*Lili-zeruan nabil.*

Arratsaldea  
dirudit deuna.

Illazkia ipin  
eskuan barna.

Nik ostera be  
damint goiena,

Larrosa-aroz  
saritzen Jauna.

*Lili-zeruan nabil.*

Orain ba-noa  
zelai barrena,

a librar a las niñas  
de galanes malos

y dar monedas de oro  
a todos los muchachos.

*Sobre el cielo  
de las margaritas ando.*

neskai kenduten  
galai txarrena.

Mutiko oroi  
urre-txanpona.

*Lili-zeruan nabil.*

*Primera página*

Fuente clara.

Cielo claro.

¡Oh, cómo se agrandan  
los pájaros!

Cielo claro.

Fuente clara.

¡Oh, cómo relumbran  
las naranjas!

Fuente.

Cielo.

Iturri garbi  
eta ozkarbi.

Txoriak zelan  
andi direan!

Zerua garbi  
ta argi iturri.

Zeñen dizdirak,  
ene, laranjak!

Iturburua  
eta zerua,

Ene, garia  
zein dan guria!



¡Oh, cómo el trigo  
es tierno!

Cielo.  
Fuente.

¡Oh, cómo el trigo  
es verde!

Zeru ozkarbi  
ta iturbegi.

Ai ene, gari  
zein dan orlegi!

## BILLABIDEA

|                                    | <u>Orrialdeak</u> |
|------------------------------------|-------------------|
| Alberto Lista . . . . .            | 63                |
| Calderón de la Barca . . . . .     | 51                |
| F. García Lorca . . . . .          | 91                |
| Garcilaso de la Vega . . . . .     | 5                 |
| Joan Maragall . . . . .            | 67                |
| J. R. Jiménez . . . . .            | 79                |
| L. Quiñones de Benavente . . . . . | 43                |
| L. Vélez de Guevara . . . . .      | 33                |
| Miguel de Cervantes . . . . .      | 27                |
| Tirso de Molina . . . . .          | 37                |

## AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak II
7. Agustín Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñiak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetakoa bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskerak (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.
33. Gabon - Abestiak (Intxausti'tar A - Gallastegi'tar K)
34. Españi'ko Olerkariak euskeraz
35. Prantz'i'ko Olerkariak euskeraz
36. Españi'ko Olerkariak euskeraz II